# TIGREA AMESGAIZTOAREN KONTRA

Emily Tetri




BADAKIZU ZER...?
HELDUEK USTE DUTE ZU NIRE IRUDIMENEAN BAKARRIK ZAUDELA.
OOO, CURRYA! ESKER MILA!


ZER USTE DUZU, JOLASEAN IBILI AHAL IZANGO GINELA BENETAKOA NINTZELA USTEKO BALUTE?
MMMM, BAI. GALDERA ONA.
CURRYA BUKATU AL DUZU?
BART GAUEKO JOLASA AMAITU GABE DUGU ORAINDIK.


LETAGIN GARBI
MARRAK ILAJEA


BIHARAMUNEAN.
ETXEAN NAGO!
DENDAN GAUDE!


HORTAZ, ZURE MUNSTRO HORI BEL-DURGARRIA AL DA?
EZ! NIRE LAGUNA DA.
ETA NOIZTIK ZARA MUNSTROAREN ADISKIDEA?





TIRA... EZ DAKIT ZEHATZ.
OROIMENA DUDANEZ GERO.
UMETAN NI IKARATZERA ETORRI BEHAR ZUELA BADAKIT...
...BAINA EZ OMEN ZITZAION BIDEZKOA IRUDITZEN UME BAT IKARATZEA.
MUNSTROEK *ZERBAIT* IKARATU BEHAR DUTE.
BERAZ, NIRE AMESGAIZTOAK UXATZEN HASI ZEN.


ETA ORAIN AFARIA ERAMATEN DIOT,
ETA JOLASEAN ARITZEN GARA,
ETA, GERO, OHERATZEN NAIZENEAN AMESGAIZTOAK UXATZEN DIZKIT.
A, ALABAZ GAINERA, MUNSTRO BAT ERE ELIKATZEN ARI GARA, EZTA?

AMESGAIZTOAK UXATZEN BADIZKIZU, MEREZI DU.
BAI HORIXE.
AFALTZEKO EZER BEREZIRIK NAHI AL DU ZURE MUNSTROAK?
* BAIEZKOA *


CURRYA GUSTATZEN ZAIO!
ETA TAKOAK!
BAINA EZ DA HARAGI GISATU ZALEA.
HARA! BITXIA DA! GAUZA BERAK GUSTATZEN ZAIZKIZUE.
AITAAA! JENDE **GEHIENARI** GAUZA BERA GUSTATZEN ZAIO.
HARAGI GISATUA TXAR-TXARRA DA.
NIRI GUSTATZEN ZAIT.


GAU HARTAN.
MUNSTRORIK BA OTE DAGOEN OHE AZPIAN BEGIRATZEA NAHI DUZU?
EZ! ESAN DIZUET, MUNSTROA NIRE LAGUNA DA.


JAKINA, JAKINA! ERGELAK GARA.


GOGORARAZI ZURE MUNSTROARI AFAL ONDOREN HORTZAK GARBITZEKO!
¡XO!
ETA GERO, GAUZEK JARRAITU ZUTEN...
...BETI BEZALA.


GAUERO, MUNSTROAK JAN EGITEN ZUEN...
...JOLASTU EGITEN ZIREN...
...ETA MUNSTROAK AMESGAIZTOAK UXATZEN ZITUEN.